

ARRANTZALEAK

ITXASOA ETA GABON KANTAK

SAMURRAK ETA ARIÑAK

Gabonak. Eguerriak.

Askoren oroitzua La gornutetan, Jainko Umea, Yosepe ta Mari, zerua, izarrak, erregeak, mendiak, artzainiak...

Eta itxasoa!

Sinismendunen elertian, feciedunen literaturan, kantak ugari dira ortaz.

Gabon kanta samur, gozo, biozkor eta atsegiñak.

Eta zetarako ukatu? Arinkeri ta lelokeri batzuk tartean.

* *

ITXASOAN

Erri pentsakera, siniste baten ikasia, ugari etorri ta artu dogu esaera ta kantuctan. Tradisiño luzea.

Barriri nire kezka: eta itxasoa ta itxastarrak?

Ba dirudi itxas ondoko gabon kanta egilleak esku gitxi sartu dabela orrelako oituretan.

Neguko ipar baltz eta giro gordiñak etxe illun eta barruetan lotu, bear ba da, itxastar, arrantzale ta mariñel bulartsu ta jatorrak,

* *

KAIETAN MAITASUNA

Ez al da esaten itxastarrak kai edo portu bakoitzean maitasun barriak billatu ta «dontzella» zoragarri ta ondobetien atzetik ibiltzen dakiela?

Pentsakera orren kateak, ain zuzen, ortazko bertsoen billa ipini gaitu ta euretako aurkitzera eroan. Ara:

*Izarra bufarrian,
Seneia sabelian,
a zer dontzella ederra
itxasoaren erdian.*

Or, alako baten, itxasoa gabon kanta eta jaietan.

*

ERREKATXOAN

Itxasoa oral: andi, esaten da. ELa bera ugaritzen daben errekek be, urak garbi.

Erreka baten ur garbiak ba dakar beste bertso polit au:

*Orrial airez aire,
ipartxo dultzea,
landa mintz-ederrean
doa errekaxoa.
Antxe topatu neban
Biigiña iVlaria
orraztuten eguala
buruko ulea.*

* * *

AZKENEAN

Ez daigun etsi. Jo aurrera. Ain zuzen Azkue'k bere «Cancionero» dalakoan Ondarroan batutakotzat agertzen daben abesti baten, ba dogu itxas lurrundun gabon kanta.

Irudimen luzeko bertso egoki eta ondo eratuak eurak:

*Albaolro intz-urraeian,
aitz baten ganian,
gizon bat arrantsuan
itxas basterrian.
Itandu bear bautsat
ete daben entzun
Belenen gaberdian
zer gertatu zaiingun.*

*Kañabera orrekin
zagozan gizona,
jaungoikuak daitsula
zuri egun ona;
bart sentidu al dozu
ezeren zaratarik,
edo entzun zeruko
aingeru kantarik?*

*Gizon gazte eder bat
egon jantzia zan,
bart, gaberdian legez,
emen igaro zan.
Aren kanta soñuak
pozez aditierik
gare guztia emon dot
arrain bat bagarik.*

* * *

FEDEDUNA

Sakondu, aztertu bertso au.

Orra arrantzale jator bat.

Fedearen soiñu adurretan, arrantzale biozbera a, arraiñik arrantzatu ez da be, gau guztian pozik, bere kama beraren tengada edo bultzadakin konturatu barik.

Jakiña, fedea da ori.

Fedeak ba ei dakiz sareak beteten, gertaera onez nai errukiz, Tiberiades ingurutan Apostoluekin gertatu zan antzera.

* * *

ARRAIN-POZA

Origaitik etxeetan ba dauke beste kantu berezi bat, itxastar arraiñak tartean dirala. Iñoiz sareak beteta etorri ez ba bra, sortuko ete zan?

*Gabon gabian oituten dogu
guztiok aparti on bat,
besigu, lebatz, makallau saltsa
eta bakoitzak al deuna.*

*

ZORIONAK!

Orra itxasoa. «Dontzella» eta arraiñekin gabonak gogorazten. Zorionak danori. Eta

*Kalma zuri,
ekaitz gorri
ta aize berrietan,
gabonak igaro
bake-zorionetan.*

A. ZUBIKARAI